



SEI TXAPELDUN. Ezkerreko argazkian, Basarri (kantari) eta Lopategi; goiko argazki handian, Amuriza, Egaña zorientzen; behekoetan, Uztapide eta Lizaso.

*Merezi edo merezi gabe
txapel ta guzti kantari,
bere zati bat eskeintzen diot
hurbildu dan jendetzari,
beste zati bat bihotz-bihotzez
eskeintzen diot aitari,
txaloak parte hartu dezuten
bertsolari guziari.*

1989-KO TXAPELKETA NAGUSIA

Batekin ase ez eta hiru bertso agur abestu zituen Jon Lopategi txapela jantzi zuen urtean. Esnalek bertso horiek ez baina Basarrik Lopategiri txapela jantzi zionean kantaturikoa du gogoan: «54 urte lehenago Basarri eta beste bertsolari jarritako gai baten gainean botatako bertsoaren antzekoa kantatu baitzuen». Hain zuzen, bertsolari-tza eta euskara lotu zituen. Lopategi, berriz, Xalbadorri eskaini zion agurra, *Hamalau heriotzena* doinua erabiliz.

Jon Lopategi

*Lehendabizi milesker
bihotzez deneri,
batez ere aurrez dauden
nere ikasleeri.
Txapela ematen zaio
gaur edozeineri,
eskaini nahi nioke
pentsatu zeineri;
jantzi gabe joan zen
Fernando Eireri.*

1993-KO TXAPELKETA NAGUSIA

Esnalen esanetan, Egañak bertso gogoangarria bota zuen lehenengo txapela irabazitakoan. Lazkao Txiki hil berria zen, eta berari eskaini zion agurra, *Zuek horrela ikusi eta doinuarekin*.

Andoni Egaña

*Zuek horrela ikusi eta
neroni jartzen naiz alai;
batahun honek beharko luke
euskaldungoaren dohai.
Ni lehengoa naiz buru gaineko
uztai edota ez uztaiz.
Inor ez zegoen lasai,
urduritasuna etsai,
denak irristadaren zai.
Goizean goizik Lazkao Txiki
aipatu dute, nolanihi...
Zuen txaloak beretzat dira,
nere txapela ere bai. (bis)*

1997-KO TXAPELKETA NAGUSIA

Esnalek ez du uste Egañak bigarren txapela jantzi zuenean aparteko bertso bota zuenik. Aita izena kanta beharrak doinuarekin eskaini zuen egungo txapeldunak azken finalaren agur bertsoa. Bertsolari elkarte-ari eskaini zion.

Andoni Egaña

*Honuntz etorri eta den-denei
mila esker ematean,
bi txapel gehitxo ote ditudan
jabetu naiz bat-batean.
Jexux ta Natxi, Mixel, Mariasun...
zerrenda luze, betean,
burutik kenduz jarri nahi nuke
zuen eskuen artean,
lanean ari zeratelako
Bertsozale Elkartearen. (bis)*

Azkenak gogoan

AGUR BERTSOAK. Berezia izaten da txapeldunaren agur bertsoa. Norbait gogora ekartzeko, eskerrak emateko... Bete-bete agertzen dira txapeldunaren sentimenduak

Ainhoa Oiarzabal | DONOSTIA

Bertso gogoangarria izaten da txapeldunak txapela jantzi ostean kantatzen duena. Beharbada ez da izaten onena, baina bai sentimendu handienarekin kantaturikoa. Aurtengoa botatzea nori egokituko zaion aiduru, 1960tik 1997ra izan diren txapelketetan entzun diren agurrak jaso ditugu jarraian —1935. eta 1936. urteetako txapeldun izan ziren Basarrik eta Txirritak kantaturikoak galdu egin dira—. Pello Esnal idazleak gogoan dituen 1980. urtetik aurrerako bertsoak nabarmendu dizkigu.

1960-KO TXAPELKETA NAGUSIA

Iñaki Eizmendi *Basarri* izan zen 36ko gerraren ondotik Euskaltzaindiak antolatu zuen lehenengo Bertsolari Txapelketa Nagusiko txapelduna. Honako agur bertso hau bota zuen Basarrik, *Pozak txoratzen hementxe nago* doinuarekin.

Basarri

*Pozak txoratzen hementxen dago
une hontan bertsolariya,
etzaio, noski, asko damutu
gaur honuntza etorriya.
Neu ez naiz ezer, Jaunaren graziaz
lehendabiziko sariya.
Eskerrik asko entzuten egon
dan jende ongi-haziya,
jaialdi hauek ematen dute*

*txertua eta biziya,
era hontako billeratzu bat
noiz ote zan ikusiya?
Izançe txoko berezi honek
badu grazi bereziya;
lur zati bat -esan diteke
zerutatik ixuriya-,
gozotasunen gozotasuna,
ezti guziyen eztiya.
Zeure eskutan daukazu beti
nahi dan aukera guztiya,
iñuntxo ere eztezu berdiñik
bihotzeko Donostiya.*

1962-KO TXAPELKETA NAGUSIA

Euskaltzaindiak antolaturiko bigarren txapelketan 84 bertsolari esku hartu zuten. Hamarren artean jokatu zen finala eta Manuel Olaizola *Uztapide*-k jantzi zuen txapela. *Iparragirre abila dela* doinuarekin abestu zuen agur bertsoa.

Uztapide

*Bertso bat eskatzen dirate hemen
sayo honen azkenean,
gaur halakoxe eguna zan da
ezin aspertu lanean.
Berrizē izan leike
garisti edo merke
ari biharra onean,
ni zuen morroi beti izango naiz
behartzen zeratenean.*

1965-KO TXAPELKETA NAGUSIA

Aurreko txapelketan bezalaxe, Uztapide gailendu zen oraingoan. Lehengoaren hariari jarraitu zion agur bertsoan.

Uztapide

*Berrero ere borondatia
badaukat nik lanerako,
zuek baño lagun hoberik
ez da nere aldamenerako.
Gure lan hori izan dedilla
euskeraren onerako.
Berriz ere ni prest naukazute
zuen serbiziyaorako.*

1967-KO TXAPELKETA NAGUSIA

Bertso agurra baino gogoangarriagoa da 1967ko txapelketako finala, Xalbadorri txistu egin zioten saioa izan baitzen. Final horretan hirugarrenez jantzi zuen txapela Uztapidek.

Uztapide

*Agur bat egin behar dizutet
bihotza bete-betian,
bai al dakit ba zer pentsatzenē
naguen nere artian?
Sekulan eñaiz egon izandu
hola poztasun batian...
Ia berrero juntatzen geran
danok datorren urtian.*

1980-KO TXAPELKETA NAGUSIA

Pello Esnalek oso ongi gogoratzen du Amurizak lehen txapela jantzi zuenean kantaturiko bertso agurra. «Zirraragarria izan zen. Txapelketa guztia ere halakoa izan baitzen». Hasierratik Amuriza erraz gailendu zela adierazi digu Esnalek. *Lurraren pean sar nindaiteke* doinuarekin txapelari kantatu zion agurra.

Xabier Amuriza

*Aizak, hi, txapel, zer sentitzen duk
ene eskura heltzean?
Ez haut buruan erabiliko
baizik zintzilik iltzean;
iltzea berriz josia diat
nik dakidan bihotzean,
han egongo haiz uda beroan
eta neguko hotzean,
bizi naizela biontzat eta
berarentzat ni hiltzean.*

1982-KO TXAPELKETA NAGUSIA

«Bertso hau ez zen aurrekoa bezain nabarmengarria izan», dio Esnalek Amurizak bigarren txapela jantzi ondoren kantatu zuen agurrari buruz.

Xabier Amuriza

*Lehen txapela nuelarikan
iltze batean jarria,
hura gorde zun maitearekin
badaukat kezka larria:
biak berari eskaini ala
bilatu maite berria.
Ez da berria, baizik zaharra
nik maite dudana herria;
Gaurkoa zuri eskaintzen dizut,
publiku agurgarria.*

1986-KO TXAPELKETA NAGUSIA

Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak antolatu zuen lehenengo txapelketan Sebastian Lizaso gailendu zen. Aitari eta entzulei eskaini zion agurra, *Pello Josepe tabernan dela* doinuarekin.

Sebastian Lizaso